



Presoen auzia konpontzeko aurrerapen, blokeo eta atzerapenei buruzko analisisia

2021eko urtarrila

AURKIBIDEA

1. Sarrera

Askatzeko dauden hiru korapilo.

2. Testuingurua

Presoen auzia konpontzeko prozesuan bi fase.

3. Lehenengo fasean izandako aurrerapen, blokeo eta atzerapenen balorazioa

- Une honetako bi eztabaidak: “hurbilketak” eta graduen bilakaera
- Frantziako Estatuan betetako zigorrak metatzea.
- Lehenengo fasean eragina duten beste faktore batzuk:
 - a. Agenda sozial, politiko eta mediatikoa
 - b. Adostasunak
 - c. Eztabaida politikoa Espainiako Estatuan
 - d. Ongi etorriak
 - e. Covid-19 birusaren pandemia

4. Fase berri batean sartzeko bete beharreko baldintzak

Konpontzeko bermearekin aurre egin behar zaien alderdiak: birgizarteratzeko ibilbidea eta 7/2003 Legea.

5. Ondorioak

Foro Sozial Iraunkorra

Pokopandegi bidea-9-2º

20018 DONOSTIA

@: info@forosoziala.eus



1. Sarrera

Foro Sozial Iraunkorra, 2016ko ekainean sortu zenetik, normalizazio politiko eta soziala lortzeko prozesuaren aurrerapen, blokeo eta atzerapenei buruzko analisiak eskaintzen ari da, eta horixe izango da dokumentu honen helburua ere, gure herrian bizikidetzaren eta bake-marko bat lortze aldera.

Kasu honetan, espetxe-politikaren bilakaeran jarriko dugu arreta. Izan ere, behin baino gehiagotan azaldu dugun bezala, horixe da une honetan askatu behar diren hiru korapiloetako bat, gertatutakoa berriro jazoko ez dela bermatuko duen bizikidetzaren demokratikotara batera aurrera egin ahal izateko.

Eta, gaurkoan, Espainiako Estatuko espetxe-politika landuko dugu. Lan honen xedea ez da Frantziako Estatuko egoera aztertzea, Foro Sozialaren parte den Bake Bidearekin partekatutako analisien bidez interes handiz jarraitzen duguna.

Bestalde, analisi hau Covid-19 birusaren testuinguruan egin da. Hori ere ondorioak izaten ari da konponbidearen prozesuan bertan (2020ko apirilaren 6an argitaratu genuen analisia aurreratu genuen bezala¹), bai eta, zehazki, dokumentu honek landuko duen gaian ere.

1. Pandemiak sortutako egoera berriari eta indarkeria-zikloaren ondorioak konpontzeko agendan dituen ondorioei buruzko analisia.

Hiru korapilo horiek labur gogoraraziko ditugu:

Lehena, biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidea bermatzea eta oraindik ere biktima batzuekiko zein besteekiko tratuan dagoen diskriminazioa gainditzea.

Bigarrena, oraindik dirauen salbuespenezko espetxe-politika behin betiko desaktibatzea eta pertsonen politika normalizatua ezartzea.

Eta hirugarrena, gizarteko espazioetatik memoria kritiko inklusiboa sustatzea, kontakizun guztiak errespetatuko dituen.

Hiru korapilo horiek eskatuz gero, bizikidetza demokratikoa eraiki ahal izateko oinarriak bultzatuko dira. Bizikidetza hori, berez, funtsezko bi esparrutan oinarritu beharko litzateke:

Pertsona guztien eskubide zibil, politiko eta sozial guztiak errespetatzeko kultura demokratikoa.

Belaunaldi berriei elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren kultura transmititzea, XXI. mendean gatazkak konpontzeko tresna bakar gisa.

2. Testuingurua

EPPK-k 2017an izandako eztabaida, ETA 2018ko maiatzaren 4an desegitea eta 2018ko ekainaren 1eko zentsura-mozioa izan ziren auzia desblokeatu eta konpondu ahal izateko agertoki erabat berria ireki zuten gertaera garrantzitsuak.

Espainiako Gobernuko presidente Pedro Sanchezek berak adierazi zuen “joera berria” ezartzeko asmoa zuela euskal preso politikoei ezartzen zitzaien espetxe-politikan.

Gainera, azken urteotan eragile ugari egin dugun lan garrantzitsua gehitu behar dugu, topagune eta elkarrizketa publiko eta pribatuak sortzeko. “Sukaldaritzako” lan diskretu hori gabe, zailagoa izango zen gaur egun bizi dugun “aukera” egoerara iristea eta egoera hori bere ahalmen osoan aprobetxatzea.

Sanchezen gobernuaren lehenengo “hurbilketak” 2018ko irailean izan ziren.

Gobernuaren ezegonkortasunaren eta 2020ko urtarrilera arte egondako hauteskunde-zurrubiloaren ondorioz, neurri batean, hurbiltzeen lehen faseak abiadura motela izan zuen, batez beste hilean 2 preso hurbildu baitziren², 2020ko urtarrilera arte.

Beranduago, 2020ko urtarrilaren 7an Pedro Sanchez gehiengo soilaz ezarri eta gero, eta gobernuaren eratzeko prozesu osoa amaitu ondoren, Covid-19 birusaren pandemia eta itxialdia etorri ziren. Horien ondorioak gero aztertuko ditugu.

Abiadura motel horrek eta ondorengo geldialdi luzeak frustrazio handia eragin zuten senide eta hurbilekoen artean, iragarpena itxaropenez hartua baitzuten.

2. 31 lekualdatze izan ziren 16 hilabetetan, 2018ko irailtik 2019ko uztaile bitartean, eta uztailetik abendura sei hilabete izan ziren mugimendu bakar bat egin gabe.

Hala, 2020ko ekainaren 19an gauzatu zen apirila, maiatza eta ekainerako iragarritako “hurbilketetan” lehen. Orduetik, erritmo konstante bati eutsi zaio eta azken hiruhilekoan azkartu ere egin da, astean bospasei preso hurbiltzen baitira, batez beste.

Foro Sozial Iraunkorrek bi fase identifikatzen ditu presoen auzia konpontzeko prozesuan:



Lehena, 2018ko irailean kaleratu zen “Konponbiderako premiazko agendan” zehaztutako bost gaietan salbuespen-egoera bukatzea. Honako hauek dira bost gaiok: gaixotasun larriak dituzten presoak eta 70 urtetik gorakoak; euskal espetxeetara hurbiltzea; lehen gradutik bigarrenera igarotzea; Frantzian betetako zigorrak metatzea eta espetxe-arloko eskumenen transferentziak egitea.

Bigarrenak honako hauek barnebiltzen ditu:

- Birgizarteratzeko plan bat definitu beharra, erakunde publikoek gidatuta eta hainbat eragilerekin adostuta, presoei gizarteratzeko ibilbidean banaka laguntzeko aukera eskainiko duena, bai baldintzapeko askatasuna lortzeko bidean, bai ondoren birgizarteratzeko bidean ere.
- 7/2003 Legearekin zigortutako pertsonen auziari konponbide egokia eta garai politiko berriarekin bat datorrena emateko beharra.

3. Lehenengo fasean izandako aurrerapen, blokeo eta atzerapenen balorazioa

Daturik garrantzitsuena da, gai honi dagokionez, gainditutzat eman dezakegula Mariano Rajoy-ren Gobernuaren garaian izandako immobilismo-fasea. “Aukera” bat existitzen da, eta eragile guztiok lagundu behar dugu landu beharreko alderdi guztiak finkatzen eta horietan sakontzen, arazoa modu integralean konpondu arte.

Datuak azkar aldatzen ari dira eta, beraz, gomendagarria da analisi atemporal honetan hurbilketei edo graduen bilakaerari buruzko erradiografiarik ez eskaintzea³. Aitzitik, ohar orokor batzuk egingo ditugu.

Egindako adierazpenak eta mugimenduak aztertuta, iruditzen zaigu ez dagoela Gobernuak publikoki zehaztutako planik, eta oraindik ez zaiela erantzun Foro Sozial Iraunkorrak 2018ko udazkenean “Konponbiderako premiazko agendan” planteatutako auziei –batez ere euskal erakundeetan adostuak izan zirenak–. Hala, gaixotasun larriak dituzten eta 70 urtetik gora duten pertsonak espetxetik ateratzearen auziari ez zaio heldu oraindik; hurbilketek ez dituzte euskal kartzelak helmuga bakar gisa izaten; eta oraindik ere espetxe-sailkapenaren irakurketa okerra egiten da, ez baita aintzat hartzen bigarren gradua dela legeak eredu arrunt eta ez-berezi gisa ezartzen duen bizi araubidea.

2. graduan daudenei edo 1. graduan egonik 100.2 artikulua aplikatzen zaien pertsonen eragin diete nagusiki “hurbilketek”, eta Espetxeetako Administrazioak berak bi sailkapen

3. Espetxeen Erakundea, Etxerat edota Behatokia -motibazio politikoa duten delituengatik zigortutako presoek aplikatzen zaien espetxe-politikari behatzeko erakundea- erakundeek datuak ematen dituzte aldizka.

horietako batera mugitu dituen pertsoneri. Espetxe-sailkapeneko 1. graduan dauden pertsona gutxiago lekualdatu dira, eta 3. graduan, hurbilketen dozena bat kasu egon da.

Gutxiengo bat baino ez dago Euskadiko eta Nafarroako kartzeletan. Horien artean, gehienak hirugarren graduan sailkatuak dira, eta hamar bat preso araubide arruntean edo 2. graduan daude sailkatuta.

“Hurbiltzeko” lekualdatze gehienak EAE eta Nafarroako Foru Komunitate inguruko espetxeetara egin dira, hau da, Errioxa, Kantabria, Asturias, Aragoi eta Gaztela eta Leongo autonomia erkidegoetako espetxeetara.

Hala ere, bigarren datu garrantzitsua da, gaur egun, oraindik ere, EPPK-ko kide gehienak 600 eta 1100 km arteko distantziara dauden espetxeetan daudela barreiatuta, sailkapeneko 1. graduan.

Erregimen itxiko (isolamendu) unitate bereziekin amaitzeko urratsak egin diren arren, horrek ez du aldaketarik ekarri graduetan.

Une honetan, bi eztabaida garrantzitsu:

“Hurbilketak”

Bistan da senideentzat hobe dela preso batek Villabonan (385 km-ra) betetzea zigorra, Algecirasen (1100 km) baino, baina honako hau da kontua: zein irizpideren arabera ezin dira dagoeneko EAeko eta Nafarroako espetxeetara hurbildu?

Adostasun politiko –Eusko Legebiltzarraren % 92 eta Nafarroako Parlamentuaren % 60–, instituzional, sindikal eta soziala dago “familian eta gizartean errotuta” egoteak birgizarteratzeko bidean duen garrantziaren inguruan.

Eta adostasun zabala dago esatean errotze hori Nafarroako eta Euskadiko lau espetxeek baino ez dutela bermatzen. Euskalduna Jauregian abenduaren 11n egin zen alderdi eta sindikatuen azken adierazpenak agerian uzten du adostasunerako espazio hori.

Gainera, Espainiako Kongresuan ere adostasun politiko zabala dago –% 55– presoei politika normalizatua aplikatzeko beharraren inguruan.

Dokumentu honetan, “hurbilketa” terminoa komatxo artean erabiltzen ari gara, hain zuzen, eztabaida hori dela eta. Foro Sozial Iraunkorretik, ezin ditugu ontzat jo erdizka egindako hurbilketa horiek, urruntzearen kilometro kopurua murrizten duten lekualdatzeak, gaur egungo egoeran ulertzen zailak direnak. Are gehiago, datuek erakusten dutenez, Euskadiko eta Nafarroako lau espetxeek badute horretarako leku nahikoa.



Beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen dugu koronabirus garai honetan senide eta hurbilekoei zigor gehigarria ezartzen dien urruntzearekin amaitzea. Gainera, zigor gehigarria ezartzen zaie presoei ere, vis a vis, familia-bisita eta mintzaleku bidezko komunikazioa ere mugatzen ari delako, itxiera perimetralak egiten ari direlako eta distantzia luzeak egiteko bestelako oztopo batzuk jartzen ari direlako.

Graduen bilakaeraz

Gaur egun, preso gehienak lehen graduan daude oraindik, eta horietako batzuei 100.2 artikulua aplikatu zaie. Kopuru nabarmen bat bigarren graduan dago, eta oso kopuru txiki bat, hirugarrenean. Gainera, hain zuzen ere lehenengo graduan sailkatuta daudenak dira urrunen daudenak.

Hainbat kartzelatan, gradu batetik bestera aldatzea ezinezko ibilbide bezala sumatzen da.

Albolote-ko (Granada) espetxeko EPPK-ko ordezkariekin 2020ko urriaren 30ean egindako azken bileran jakinarazi zitzaigunez –eta nahiz eta EPPK-k bide horri ekiteko asmoa izan eta dagoeneko hasi den–, oraindik ere bi gaik baldintzatzen dituzte beharrezkoak diren banakako programak:



- Laguntzeko ardura duten funtzionarioetako askoren –psikologoak, gizarte-hezitzaileak– joera ideologikoa, bai eta Tratamendu Batzordeena eta espetxe batzuetako zuzendaritzena ere.

Horrek, oraindik ere, gainditu ezinezko oztopo ugari sortzen ditu, Behatokiaren txostenean (motibazio politikoa duten

delituengatik zigortutako presoek aplikatzen zaien espetxe-politikari behatzeko erakundea) Kordobako espetxeari buruz agerian geratu zen bezala.



Bigarren oztopoa 100.2 artikuluari dagokio, hau da, espetxe-arautegiaren lehen graduari aplikatzen zaion malgutasun-printzipioari. Izan ere, horrek aukera ematen du sailkapen batean edo bestean egonda ere, graduaren baldintzak leuntzeko, baina ez da bere horretan espetxe-sailkapen bat edo tratamendu-gradu bat.

Espetxeko tratamenduak hala eskatzen badu, beste espetxe-gradu batzuetako alderdiak har daitezke, nahiz eta presoak gradu horretan sailkatuta ez egon, baina aldi baterako betiere, egokiena baita Espetxe Araudian jasotako salbuespenezkoak ez diren espetxe-sailkapenetako bat (2. edo 3. gradua) onartzea.

Hala ere, gaur egun, lehen graduan malgutasun-printzipioa neurritz kanpo erabiltzen ari dira. Izan ere, zenbait presok bi urte baino gehiago daramate sailkapen-maila berri horretan. Bere garaian tarteko urrats gisa aurkeztu bazen ere, gaur egun presoaren baldintzak aldatzea galarazten duen horma bihurtu da, eta arriskua dago Araudiak jasotzen ez duen espetxe-gradu berri bilakatzeko, graduaren artean arruntena bigarrena izan beharrean.

Honako galdera hau egin beharko genuke: zein argudio tekniko, legal edo moralek justifikatzen du presoak era mugagabearen edukitzea graduaren arteko erdibide horretan?

Hirugarren oztopoa hurbildutako preso batzuen helmugako espetxeari dagokio.

Presoen kopuru esanguratsu bat bigarren gradura igarotzea eta etxera hurbiltzea urrats positiboak dira, norabide egokian, betiere horrek aurrera egiteko balio badu eta ez berriro ere tratatuta gelditzeko.



Behatokiak Zuerako espetxeari buruz egin berri duen txostenak agerian uzten du errealitate hori ez dela lineala aplikazioaren aldetik. Espetxeen Erakundearen arabera, Zuerako espetxea “mugakidea” da eta hurbiltzen diren preso batzuen helmugako

espetxea da. Hala ere, espetxe horretan, gero presoek ez dute izaten espetxe barruan ibilbidea egiteko edota gradua aldatzeko aukerarik. Ez dute berariazko programetarako sarbiderik ere izaten. Espetxe hori benetako bide hila bilakatu da.

Bestalde, azpimarratu behar dugu errealitate horrek talka egiten duela Grande Marlaska ministroak (La Vanguardia 2020/11/15) egindako adierazpenekin, honako hau esaten zutenean: *“persona bat lehen gradutik bigarreneira igarotzen bada, zenbait kasutan espetxez aldatu behar da, dagozkion programak eman ahal izateko. Erabakigarria iruditzen zait”*.

Hirugarren atal honen ondorio gisa, datuek eta gogoetek argi uzten dutenez, norabide egokian urratsak egiten ari diren arren, oraindik urrun gaude auzi honetarako konponbide integral baten agertokitik.



Egindako urratsek agerian uzten dituzte zailtasun berriak. Hain zuzen ere, egoera berri horietan arreta jartzeko sustatu zuen Foro Sozial Iraunkorrek Behatokia sortzea (motibazio politikoa duten delituengatik zigortutako pre-

soei aplikatzen zaien espetxe-politikari behatzeko erakundea), Bilbon, 2020ko ekainaren 30ean aurkeztu zena.

Bestalde, 2020ko urtarrilaren 2an Foro Sozial Iraunkorrek birgizarteratzeko prozesu arrakastatsua izateko proposamena jendaurrean zehaztu zuen. “Guztion eta guztiontzako euskal bidea” deitu genion, eta barnetik kanporako prozesu gisa ulertu behar da, hots, ziegatik kalerainoko prozesu gisa.

Prozesuak arrakastarako bermea eduki ahal izateko, hiru alderdi iruditzen zitzaizkigun beharrezkoak: Espainiako Gobernuak espetxe-salbuespenaren fasea gainditu eta birgizarteratzeko bideak proposatzeko borondatea izatea; presoek inplikazio irmoa izatea; eta Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta inplikaturako gizarte zibileko erakundeen borondatea izatea, birgizarteratzean ekarpenak egiteko.


Gaur egun, metaturako datuak ikusita, laugarren alderdi bat sartu beharra daukagu: birgizarteratzeko ibilbide horrek bermatu behar du egindako urratsek ibilbidea izango dutela eta Espetxeen Erakundeak lagundu egingo duela, beharrezko baliabide eta politika koherenteak jarritz.

Frantziako Estatuan betetako zigorrak metatzea

Estrasburgoko Auzitegiaren inibizioa, Europako Esparru Erabakia ez aplikatzea (Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ezarritako zigorrak metatzea ahalbidetzen duena) eta kontrako norabidean egindako legeria (7/2014 Legea) zailtasun gehigarriak dira preso-aren eskubideak babesteko prozesuan, eta beste oztopo bat, birgizarteratzeko prozesuan.

Lehenengo fasean eragina duten beste faktore batzuk

a. Agenda sozial, politiko eta mediatikoa



2020ko apirileko analisisian honako hau esaten genuen: “Gizartea lehentasunen agenda berri batekin aterako da konfinamendutik. Hala ere, sartzekoan genituen arazo berak izango ditugu, besteak beste, ‘konponbiderako agenda’ esaten zaiona”. Hala, adierazten genuen, gure ustetan, “konfinamenduak baldintza hobeak sortu [zituela] indarkeria-zikloaren ondorioak behin betiko konpontzera bultzatzeko”.

Gertaerek bi baieztapen horiek berretsi dituzte. Covid-19 birusak eragin handia izan du gure bizitzetan, eta pertsona, komunitate eta gizarte gisa ditugun lehentasunetan ere eragin du. Bakean eta bizikidetzan egindako aurrerapenak dagoeneko eragiten zuten eragileen lehentasunen agendan gai horiek gero eta garrantzi txikiagoa izatea, eta Covid-19 birusak egoera hori areagotzea ekarri du.

Hala ere, eta hasiera batean kontraesana badirudi ere, esan behar dugu auziak leku garantzitsua duela oraindik ere agenda politiko, sozial eta mediatikoan.

Atal honekin amaitzeko, gizarte zibilak duen rol aktiboa aipatu nahi dugu, Foro Sozial Iraunkorrek beti nabarmendu duena. Aipatu behar da, besteak beste, Sare, Etxerat eta Bake Artisauak-Bake Bidea erakundeek edota sindikatuek lan handia egin dutela gai hori agenda sozialean eta mobilizazioetan mantentzeko, baita gaur egungo testuinguruan ere.



b. Adostasunak

Eskakizun batek inoiz ez du izan gai honek duena bezain adostasun zabalik. Adierazpen instituzional, politiko, sindikal eta sozial ugari sakontzen dute horretan, eta ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldeko Euskal Mankomunitatean, baizik eta Espainiako Kongresuan, Bartzelonako zein Parisko Udaletan, Kataluniako Parlamentuan eta nazioarteko komunitatean ere.

Covid-19 birusaren pandemiak adostasun horiek zabaltzeko aukera eman du eta, hala, orain arte existitzen ez ziren lankidetzaren eremu berriak sortu dira, batez ere Nafarroan eta Espainiako Estatuan. Aurrerago xeheago aztertuko dugu gai hori.



Adostasun horiek eraikitzea hari finez ehuntzeko lanaren emaitza izanda, diskretua, fokuetatik urrun, erakundeen barruan zein kanpoan. Elkar-gune horiek, zailtasunak zailtasun, konfiantza-esparruak sortu dituzte, eta

eragile guztiak batzen dituenari balioa ematen jakin izan dute, elkarrengandik bereizten dituenari baino gehiago.

Elkarrizketa aldeaniztunak, adostasun horiek testuinguru egokian hainbat modutan antzetzeko baldintza objektiboak sortu dituztenak. Foro Sozial Iraunkorrean sinetsita gaude pazientziatzko lan hori gabe egungo adostasuna are zailagoa izango zela.

Edonola ere, adostasun horiek ez dute behar adinako palanka-efektua eragin aipatu dugun lehen fase hori amaitutzat eman ahal izateko.

Atal honekin amaitzeko, gaur egungo adostasunak kokatzeko bost alderdi nagusiak azaldu nahi ditugu:

- Lege- eta espetxe-salbuespenaren egungo fasea gainditu beharra, legeria arrunta aplikatzea orokortuz, eta legeria berrietan aurrera egitea, garai politiko berri baterako.
- Helmugako espetxeek presoak familian eta gizartean errotuta egotea bermatu behar dute. EAEko eta Nafarroako espetxeetan soilik bermatuko da errotze hori.

- Bakarkako ibilbideek askatasunik ez duten pertsonak osoki birgizarteratzea ahalik eta azkarren bermatu behar dute.
- Auzi hau alderdien arteko eztabaida politikotik atera behar da.
- Azkenik, Eusko Legebiltzarra eta Jaurlaritza eratu zirenetik erabateko presentzia hartu duen faktore bat, eta Foro Sozial Iraunkorrarentzat funtsezkoa dena: presoen auzia konpontzea ekarpen eta aktibo bat izango litzateke bizikidetzaren demokratikorako bidean aurrera egiteko.

c. Eztabaida politikoa Espainiako Estatuan

Gai honetan negatiboki eragiten duen faktore bat Espainiako Estatuan ematen den eztabaida politikoa da. Azken hilabeteotan, gai honen inguruko eztabaida politikoa gogortu egin da Madrilen, ETA desagertzearekin ireki den testuinguruan imajinaezina zirudiena.

Bagenekien eta badakigu Espainiako Estatu osoan ulertezintasun handia dagoela Euskadin eta Nafarroan bizi den bake-agertoki berriarekiko. Baina, era berean, aurreikusten genuen sektore indartsuak aldaketa hori oztopatzen saiatuko zirela, hain zuzen ere, gertatzen ari den bezala.

Zentzu horretan, egiaztatzen ari gara presio handia egiten duen *lobby* garrantzitsu baten eragina geroz eta handiagoa dela.

Lobby hori garaileen eta garaituen logiketan dago ainguratuta, eta gai horietan egin beharreko urratsak baldintzatu nahi ditu, batez ere politika instituzionaletan, baina baita ebazpen judizial eta administratiboetan ere (ebazpen horiek, espetxe-legeria arruntarekin bat

datozenak, zenbait prozesu ahalbidetzen dituzte, hala nola graduetan aurrera egitea edota baimenak lortzea, presoak erabat birgizarteratzeko helburuarekin).

Hala bada, hainbat interesek bultzatuta, sektore politiko, polizial eta mediatikoak elkartzen ditu lobby horrek, baita ETAREN biktimen sektore antolatua eta espetxeen erakundeetan, fiskaltzan eta epailetzan instalatutako sektoreak ere.

Auzitegi Gorenak “Bateragune” kasuari buruz hartu berri duen erabakiak gure analisia berresten du.

Biktima bakoitzak bere minari buruz egiten duen kudeaketa erabat errespetatuz, kezka berezia adierazi nahi dugu, elkarte batzuek interes partikularra interes orokorrarekin nahastu dutelako.

Bereziki aipatu behar da, bestalde, elkarte horietan antolatzen ez diren biktimei irainak egiten zaizkiela, beren ahots propioarekin beste sufrimendu batzuekiko elkarriketa- eta enpatia-mezuak bidaltzeagatik.

Paradoxa badirudi ere, eztabaida sutsu horren ondorioz, orain arte Espainiako Estatuan ikusi ez den erreakzio bat gertatzen ari da, espetxe-politikan aldaketak izaten ari baitira, eta ETAREN biktima horiei babesa ematen ari baitzaie, bi espaziotan:

- Sare sozialen edo iritzi-artikuluen bidez, pertsona askok erreakzionatu dute egoera horren aurrean;
- Pisuzko komunikabideen aldetik, beste hurbilketa bat egiten ari da auzi honekiko.

JORNADA

**PAÍS VASCO:
UNA NUEVA POLÍTICA
PENITENCIARIA
PARA UNA NUEVA
NORMALIDAD**

15h.- APERTURA
Elena Vázquez (Foro de Abogados de Izquierdas),
Agoa Herman (Foro Social Permanente),
Señor José Antonio Martín Pallín (Magistrado emérito
del Tribunal Supremo)

16h15.- PRESENTACIÓN DEL "BEHATOKIA. Observatorio de la política penitenciaria aplicada a presas y presas condenadas por delitos de motivación política"
Análisis de la evolución de la política penitenciaria y dificultades (acumulación de penas y FODZ).
Participante: **Aitzel Asa** (Miembro del Decanato del Colegio de la Abogacía de Bizkaia)

16.30h.- PRIMERA MESA REDONDA
Título: "¿Cómo pasar de una política de excepcionalidad a una política penitenciaría normalizada?". Participantes: **Javier Mira Benavent** (Derecho Penal/ Universidad de Valencia), **Silvia Ribotta** (Instituto de Derechos Humanos de la Universidad Carlos III), **Kabier Etxebarria** (abogado y profesor asociado UPV) y **Amalia Uze** (Abogada).
Moderador: **Agoa Herman** (Foro Social Permanente)

17.40h.- Descanso. Café

18h.- SEGUNDA MESA REDONDA
Título: "Valores democráticos y sistema penitenciario español. Una nueva era".
Participantes: **Marta Vicente** (Jueces para la Democracia), **Daniel Amelang** (Asociación Libre de Abogados), **Marta Urbano** (SISEJ).
Moderador: **Juan Moreno** (Foro de Abogados de Izquierdas)

19h.- DEBATE
Preparado por escrito. En sala o on-line

20h.- Fin de la jornada



MADRID, 24 DE SEPT. DE 2020
ESPACIO ECOO. C/ DE LA ESCUADRA, 11.
Aforo limitado Medidas Covid. Confirmar asistencia presencial en info@forosoziala.eus

F.A.I.-RADE **F** **Bako** **SISEJ**

Entidades colaboradoras:
SISEJ
Asociación de Abogados de Izquierdas

Alde horretatik, balio berezia ematen diogu joan den otsailaren 10an Kataluniako Parlament onartutako adierazpenari, irailaren 24an Madrilen egin genuen jardunaldiari⁴ eta abenduaren 16 eta 17an Andaluzian izan genituen bilerei.

Atal honekin amaitzeko, gai honetan eragin zuzena duten bi alderdi garrantzitsu nabarmendu nahi ditugu:

- Foro Sozial Iraunkorrek egiaztatu duenez, gaur egun, Espainiako Kongresuaren % 55 espetxe-politika egokitzearen eta normalizatzearen aldekoa da⁵.
- Espainiako Estatuko gaur egungo gehiengo politikoa sendotzeak auzia konpontzen lagun dezake eta lagundu behar du.

Alderdi horiek guztiek gure lan-ardatzetako batean sakontzen jarraitzeko beharra azpimarratzen dute: "Euskadiko eta Nafarroako bizikidetzak demokratikoaren aldeko iritzirik demokratiko baten korrantea sortzea Espainiako Estatuan".

Iritzirikorrante horrek benetako euste-horma izan beharko luke gizartean alarma birtual bat sortu eta bizikidetzak demokratikoaren aurkako agenda ezartzen saiatzen diren sektoreen aurrean.

4. Parte-hartzaileak: Jueces para la Democracia, Asociación Libre de Abogados, SISEJ, Foro de Abogados de Izquierdas eta Instituto de Derechos Humanos de la Universidad Carlos III.
5. PSOE, Unidas Podemos, ERC, EAJ-PNV, EH Bildu, Mas País-Compromis, PDECat, JxCat, CUP eta BNG.

d. Ongi etorriak

Alderdi honek eragin zuzena du lantzen ari garen gaian.

2019ko apirilaz geroztik, Foro Sozial Iraunkorra lanean aritu da gai horretan adostasun nahikoa sortzeko. Lan horren ondorioz, 2019ko uztailaren 31n, eztabaidarako proposamen bat argitaratu zuen.

Gure ustez, nahiz eta gai honen inguruko eztabaida politikoak oihartzun mediatiko handia izan, funtsezko hiru gai daude:

- Gure gizarteak ezin du onartu sufritu edo sufritzen duten pertsonei sufrimendu gehiago eragitea.
- ETaren biktimak minduta sentitzen dira *ongi etorriak* egiteko modu batzuekin.
- Presoen familiek eta hurbilekoek eskubidea dute, ikuspuntu humanitariotik, beren zigorrak (kasu askotan muturreko egoera gogorretan, urrun, isolatuta...) bete dituzten pertsonei harrera egin eta haiek besarkatzeko.

Gaur egun, Foro Sozialarekin lan egiten duten eragile gehienak hiru alderdi horietan bat datoz, modu publiko eta pribatuan –bakoitza bere ñabardurekin–. Hala ere, bistakoa da adostasun-puntu horiek ez direla, oraingoz, auziari irtenbidea emateko oinarri nahikoa.

Foro Sozial Iraunkorrek honako galdera hau egin nahi du, gogoeta bultzatzeko: eragile gehienak ados badaude aipatu berri ditugun oinarri nagusietan, ez ote gara gai izango, min guztiak errespetatuz, auziari irtenbidea ematen dioten moduak antolatzeko?

e. Covid-19 birusaren pandemia

Etxeko itxialdia bereziki gogorra izan zen presoek senide eta hurbilekoentzat, berez justifikatu ezin diren urrutze eta espetxe-salbuespeneko politikek eragiten duten oinazea handitu egin baitzuen. Une horietan, frustrazioa eta komunikatzeko zailtasunak are handiagoak izan ziren.

Orain, egoera ez da normaltasunera itzuli, eta lurraldeetako itxialdi eta itxiera perimetral berriek gehiago sakontzen dute bisiten eta bidaien segurtasun faltan eta komunikatzeko zailtasunetan.

Aurretik ere aipatu dugunez, pandemiari esker, preso politikoei aplikatutako salbuespeneko politika egokitzeko eskaerari dagokionez orain arte sortuak ziren adostasunak nabarmen hedatu dira eragile berrien artean, eta aukera berriak zabaldu dira.

Preso sozialen eskubideen alde lan egiten duten erakundeek eta preso politikoen eskubideen alde lan egiten dutenek –orain arte oso lankidetzat txikia baitzuten–, alderdi politiko eta sindikatuek gain, lankidetzarako eta adostasunak ezartzeko eremuak aurkitu dituzte pandemia honetan, eta ekimenak aurkeztu dituzte Espainiako Kongresuan eta EAE eta Nafarroako Legebiltzarretan.

Pandemiak eta espetxeetan konfinatzeak are larriago bihurtzen dute, posible bada, terrorismoaren aurkako logikari lotutako espetxe-politika. Koronabirusaren garai honetan, zigor gehigarria ezartzen zaie presoek beraiei eta haien senide eta hurbilekoei, eta gizarteak ez du hori onartzen.

Ikuspuntu humanitario batetik, ez da bidezkoa senideak eta hurbilekoak ziurgabetasun-egoera horretan mantentzea.

4. Fase berri batean sartzeko bete beharreko baldintzak

Lehenik eta behin, esan behar dugu ulertzen dugula espetxe-politikan aldaketa ez dela lineala izango eta, dagoeneko gertatzen ari den bezala, aurrerapenak eta blokeoak izango dituela.

Hasieran esan bezala, funtsezkoa da 2018an “Konponbiderako premiazko agendan” zehaztutako bost gaiak arrazoizko epe batean ixtea: gaixotasun larriak dituzten presoak eta 70 urtetik gorakoak; euskal espetxeetara hurbiltzea; lehen gradutik bigarrenera igarotzea; Frantzian betetako zigorrak metatzea eta espetxe-arloko eskumenen transferentziak egitea.

Egoera desblokeatzeak eta “premiazko agenda” gainditzeak soilik lagunduko dute borondate politiko osoa sumatzen; auzia behin betiko konpontzeko moduko konfiantza-giroa sortuko duen borondatea.

Foro Sozial Iraunkorrean, helburu gisa jarri dugu datorren ikasturte politikoan (2021-2022) presoen auzia ebazpen-fase berri batean kokatzeko erronkei aurre egiten hastea. Beharrezkoa ez ezik, egingarria eta zentzuzkoa ere iruditzen zaigu.

Fase berrian, dagoeneko aipatu ditugun bi alderdiei egin beharko zaie aurre, konpontzeko bermearekin:

- a. Birgizarteratzeko plan bat definitu beharra, erakunde publikoek gidatuta eta hainbat eragilerekin adostuta, presoei gizarteratzeko ibilbidean banaka laguntzeko aukera eskainiko duena, bai baldintzapeko askatasuna lortzeko bidean, bai ondoren birgizarteratzeko bidean ere.

- b. 7/2003 Legearekin zigortutako pertsonen auziari konponbide egokia eta garai politiko berriarekin bat datorrena emateko beharra. Gai konplexua da, eta gatazkak konpontze-ko erabiltzen diren nazioarteko estandarrei jarraitu beharko zaie. Horretarako, ahalegin guztiak bideratuko dira arazoari irtenbide iraunkorra ematera, bakea finkatzera eta gatazka ez errepikatzeko bermeak ziurtatzera. Bestalde, berritzailea izaten saiatu beharko da, eta jadanik existitzen ez den –eta zigorrak gogortzeko logika zuen– estrategia anti-terrorista baten ondorioz sortu zen legeria kentzen. Alde horretatik, nazioarteko beste prozesu batzuetan aplikatutako justizia trantsizional moduak bilatzearen alde egiten dugu, jasandako ondorioak ixteko.

Hori guztia egoera behin betiko gainditzeko helburuarekin planteatzen dugu. Alderdi hori beharrezkoa da bizikidetzaren demokratikoaren beharrezko oinarriak ezartzeko, gertatutakoa ez errepikatzeko bermearekin.

5. Ondorioak

Gehiengo eta adostasun instituzional, politiko, sindikal eta sozial transbertsal nahikoak daude gai horiek konpontzeko behin betiko fase integral batean sar daitezzen.

Adostasun horiek bi funtzio bete behar dituzte:

- Espainiako Gobernuari palanka egitea.
- Espainiako Gobernuari berari laguntza ematea auziari irtenbidea ematearen kontra dauden sektoreen aurrean.

Hala ere, ibilbide hori, “Guztion eta guztiontzako euskal bidea”, arrakastatsua izan dadin, presoekin adostu behar da. Hori da birgizarteratzeko prozesua osoa izateko eta bizikidetzaren demokratikoari ekarpena egiteko berme bakarra.

Uste osoa dugu jasan dugunagatik –jasaten ari garenagatik– metaketa bat sortzen ari garela, eta horrek gizarte hobea eraikitzen lagunduko digula.

Esan gabe doa konpromiso irmoa dugula diagnostikoak egiten, esperientziak partekatzen, gomendioak egiten eta beharrezkoak diren errazte-lan diskretuak egiten jarraitzeko, trespertza zail batean, gai honi irtenbide berritzaileak aurkitzen lagunduko duelakoan.



Bake
prozesua
indartzeko

Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso

de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus

de paix

Social Forum
to promote the Peace process